

**AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA**

prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen Dekretua bigarren aldatzeko Dekretu Proiektuari buruz

**CONSULTA PÚBLICA PREVIA**

sobre el Proyecto de Decreto de segunda modificación del Decreto por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Ogasun eta Ekonomia Sailarekin batera, prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen Dekretuaren bigarren aldaketa sustatu du, kirol-lehiaketetan eta jarduera fisikoarekin lotutako ekitaldietan dopinaren aurkako kontrol-zerbitzuak sartzeko asmoz.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea), herritarrek lege eta araudien proiektu eta aurreproiektuak egiteko prozeduretan parte hartzen dutela sustatu behar da.

Hartara, Lege horren beraren 133. artikulua arabera, herritarrek arauaren proiektua egin aurretik parte hartzen dutela sustatze aldera, kontsulta publikoko epe bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren webgunearen bidez.

Proposatutako arau-proiektua izapidetzean egingo diren hurrengo izapideetan (nahitaezkoak izan nahiz ez) partaidetza-neurri osagarriak ezar daitezkeen arren, herritarrek, erakundeek eta elkarteek beren iritzia eta iradokizunak helaraz ditzakete, egokitzen jotzen badute,

- 2017ko azaroaren 13tik 2017ko abenduaren 4ra bitartean,

El Departamento de Cultura y Política Lingüística, junto con el Departamento de Hacienda y Economía, promueven la segunda modificación del Decreto por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos, con el propósito de incluir los servicios de control antidopaje en competiciones deportivas y eventos relacionados con la actividad física.

Conforme a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, ha de atenderse al fomento de la participación ciudadana en el procedimiento de elaboración de anteproyectos y proyectos de ley y reglamentos.

De este modo, de acuerdo con el artículo 133 de dicha Ley, al objeto de propiciar esa participación ciudadana con carácter previo a la elaboración del proyecto de norma, se abre un periodo de consulta pública, a través del Portal web de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Sin perjuicio de las medidas adicionales de participación a desarrollar en los sucesivos trámites, preceptivos o no, de la tramitación del proyecto normativo propuesto, las ciudadanas y los ciudadanos, así como las organizaciones y las asociaciones que así lo consideren pueden hacer llegar sus opiniones y sugerencias,

- desde el 13 de noviembre hasta el 4 de diciembre de 2017,



- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren webgune instituzionalaren bidez: «euskadi.eus» (<http://www.irekia.euskadi.eus/es>).

Horrenbestez, etorkizuneko arauak gehien ukitu ditzakeen herritarren eta erakunde eta elkarte esanguratsuenen iritzia jasotzen da, honako gai hauetan:

### **1. Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak**

Kirol-lehiaketetan eta jarduera fisikoarekin lotutako ekitaldietan dopinaren aurkako kontrol-zerbitzuen zioz prezio publikoak ezartzen badira, zerbitzu horien kostua estali ahalko da, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren zerbitzuak eskatzen dituztenen ekarpenaren bidez. Era berean, prezio publikoen gaineko araudi horrek aukera emango du dopinaren aurkako kontrol-zerbitzuen eskaria arrazionalizatu dadin.

Ekainaren 21eko 12/2012 Legeak (Kiroleko dopinaren aurkakoak) araudia dopinaren fenomeno berrietara eguneratu zuen, kirolean dopinaren aurka borrokatzeko orduan aurreratuen dauden nazioarteko erakundeetan zabalki onartuta dauden printzipioak abiapuntutzat hartuta. Urtero, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak txapelketa eta kirolarien artean dopinaren aurkako kontrol-programa bat planifikatu eta garatzen du, 12/2012 Legearen eremuan. Era berean, 12/2012 Legean (10.1.t eta 18. artikulua) Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia gaitzen du urtero planifikatutako kontrolez kanpo ere egin daitezen kontrolak, hirugarrenek proposatuta: federazioek, txapelketa-antolatzaileek, beste agente batzuek...

### **2. Onartzeko beharrezana eta aukera**

Prezio publikoak ezartzeko, Tasa eta Prezio Publikoen Legearen testu bateginak (irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsiak) 31. artikuluan dioenez: *prezio publikoen arabera ordain*

- a través del portal web institucional de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco «euskadi.eus» (<http://www.irekia.euskadi.eus/es>).

Se recaba, por tanto, la opinión de ciudadanas y ciudadanos, organizaciones y asociaciones, más representativas potencialmente afectadas por la futura norma acerca de:

### **1. Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa**

El establecimiento de precios públicos por los servicios de control antidopaje en competiciones deportivas y eventos relacionados con la actividad física, permitirá cubrir el coste de dichos servicios, mediante la contribución de aquellos que solicitan los servicios de la Agencia Vasca Antidopaje. Al mismo tiempo, esta regulación de precios públicos permitirá racionalizar la demanda de dichos servicios de control antidopaje.

La Ley 12/2012, de 21 de junio, contra el Dopaje en el Deporte, supuso una actualización de la normativa a los nuevos fenómenos del dopaje, basada en los principios comúnmente aceptados por los organismos internacionales más avanzados en la lucha contra el dopaje en el deporte. Anualmente, en la AVA se diseña, planifica y lleva a cabo un programa de controles antidopaje de competiciones y deportistas, en el ámbito establecido por la Ley 12/2012. Asimismo, en la Ley 12/2012 (artículos 10.1.t y 18) se habilita a AVA para la realización de controles fuera de los anualmente planificados, propuestos por terceros: federaciones, organizaciones de competiciones, otras agencias,...

### **2. La necesidad y oportunidad de su aprobación**

Para al establecimiento de precios públicos, en el artículo 31 del Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos, aprobado mediante el Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, se prevé que *los servicios y*



daitezkeen jarduerak eta zerbitzuak Dekretu bidez ezarriko dira, Ogasun eta Administrazio Publikoko Sailak eta horiek ematen dituen Sailak edo dagokion organo edo erakundearekin lotutako Sailak batera proposatuta. Hala, prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuan jasota daude (azaroaren 2ko 152/2016 Dekretuaren bidez aldatutakoan).

Ondorioz, zerbitzu edo jarduera berri bat sartzeko, beharrezkoa da aipatu 397/2013 Dekretua bigarrenez aldatzea.

### 3. Arauaren helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko prezio publikoak arautzen dituen araudian diruzko kontraprestazioak ezartzeko aukera ematen da, zuzenbide publikoko araubidean egindako jardueren edo emandako zerbitzuen zioz, baldin eta, zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuan ematen badira ere, beren borondatez eskatu badituzte administratzaileek.

Prezio publikoak (bai eta tasak ere), zerbitzu edo jarduera publiko bat hornitzeko kostuak izanik, errekurtso bat gehiago dira, tresna bat gehiago, kostu horiek finantzatzeko, bai eta eskaria arrazionalizatzeko ere, preziook ordainaraztearen bidez.

397/2013 Dekretua aldatu ondoren, Tasa eta Prezio Publikoen Legearen testu bateginak 33.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, *prezio publikoen zenbatekoa, Lege berezi batek kontrakorik ezartzen ez badu, horiek jasoko dituen organo edo erakundearekin lotutako Saileko sailburuak aginduta eta proposatuta ezarri edo aldatuko da.*

*actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos se establecerán mediante Decreto, a propuesta conjunta del Departamento de Hacienda y Administración Pública y del Departamento que los preste o del que dependa el órgano o ente correspondiente. De este modo los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos quedan recogidos en el Decreto 397/2013, de 30 de julio (modificado por el Decreto 152/2016, de 2 de noviembre).*

Por tanto, la inclusión de un nuevo servicio o actividad precisa necesariamente de una segunda modificación del citado Decreto 397/2013.

### 3. Los objetivos de la norma

En la normativa que regula los precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi se permite fijar contraprestaciones pecuniarias por la prestación de servicios o la realización de actividades efectuadas en régimen de derecho público cuando, prestándose también tales servicios o actividades por el sector privado, sean de solicitud voluntaria por parte de los administrados.

Los precios públicos -al igual que las tasas-, como expresión del coste de provisión de un servicio o actividad pública, son un recurso más, un instrumento, para la financiación de los mismos, así como para racionalización de la demanda mediante su exacción.

Posteriormente a la modificación del Decreto 397/2013 que se promueve, conforme a lo previsto en el artículo 33.1.a) del Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos, *para la fijación o modificación de la cuantía de los precios públicos se realizará, salvo que una Ley especial disponga lo contrario, por Orden del Consejero del Departamento del que dependa el órgano o ente que ha de percibirlos y a propuesta de éstos.*



Ondorioz, 397/2013 Dekretuko prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jardueren artean sartzen badira kirol-lehiaketetan eta jarduera fisikoarekin lotutako ekitaldietan egin beharreko dopinaren aurkako kontrol-zerbitzuak, zerbitzu horien gainean prezio publikoak ezartzeko lehen urratsa ematen da.

#### **4. Bestelako aukera posibleak, arauzkoak eta ez arauzkoak**

Kirol-lehiaketetan eta jarduera fisikoarekin lotutako ekitaldietan dopinaren aurkako kontrol-zerbitzuak finantzatzen laguntzeko, baldin eta zerbitzu horiek Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak emandakoak eta interesdunek beren borondatez eskatutakoak badira, zerbitzu horien ziozko prezio publikoak ordainarazi behar dira, are zerbitzu horiek beste agente pribatu batzuek ematen dituztenean.

Por tanto, con la inclusión de los servicios de control antidopaje en competiciones deportivas y eventos relacionados con la actividad física entre los servicios o actividades susceptibles de precios públicos del Decreto 397/2013, se da el primer paso para el establecimiento de precios públicos sobre dichos servicios.

#### **4. Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias**

La contribución a la financiación de los servicios de control antidopaje en competiciones deportivas y eventos relacionados con la actividad física, prestados por la Agencia Vasca Antidopaje y solicitados de forma voluntaria por los interesados, requiere la exacción de precios públicos por dichos servicios, que también son prestados por otros agentes privados.